

**ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA,  
[REDACTED] ANDREAK AURKEZTUTAKO  
ERREKURTSOA EZ ONARTZEKO DENA.**

---

**Esp. 16/2016**

**AURREKARIAK**

**BAKARRA.-** [REDACTED] andreak, Bizkaiko Golfeko Batzar Nagusiko kideak, epaileen estamentuaren izenean, errekurtsoa jarri zuen 2016ko irailaren 9an (16/2016 zenbakiarekin erregistratu zen), eta haren eskaera-atalean hau dio, hitzez hitz:

Bizkaiko Golf Federazioaren Batzar Nagusi Bereziak 2016ko irailaren 5eko erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez aldatu egin ziren Bizkaiko Golf Federazioaren estatutu-16-1 artikuluko a) eta c) epigrafeak eta Hauteskunde Arautegiaren 3.1 artikuluko a) eta c) epigrafeak, eta eskaeraren helburua aldaketa hori inpugnatzea da, zuzenbidearekin bat ez datorrelakoan. Eta, prozeduraren izapide guztiekin jarraituz —Bizkaiko Golf Federazioari Batzarraren akta eskatzea barne—, idazki honen bidez errekurtsoa jarritzat eman dezan eta, horren arabera, errekurritzen den estatutu-aldaketa zuzenbidearen aurkakotzat jo dadin, ezeztat dadin eta aldaketaren aurreko estatutuak indarrean daudela deklaratu dadin; izan ere, horren bidez Epaileen Estamentuari % 5eko ordezkari-tasa aitortzen zitzaion Bizkaiko Golf Federazioan.

Halaber, presako kautela-neurria hartzeko eskatzen du: errekurritzen den estatutu-aldaketa geldiaraztea errekurtsoa ebatzi arte.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**BAKARRA.-** Proposatutako gaiari erantzuna eman ahal izateko, nahitaezkoa da zer errekurritzen ari den zehaztea.


Horrenbestez, Bizkaiko Golf Federazioak Estatutuetan eta Hauteskunde Erregelamenduan aldaketa egiteko hartutako eskubidea zuzenbidearen aurkakotzat jotzea du helburu.

Bai 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirolarenak, bai 16/2006 Dekretuak, Kirol Federazioei buruzkoak, xedatzen dutenez, Euskadiko eta lurraldeetako federazioek, besteak beste, administrazio-izaerako funtzio publiko hauek gauzatzen dituzte: haien estatutuak eta erregelamenduak onartzea (Legearen 25.1h artikulua eta Dekretuaren 14h artikulua), eta, Legearen 29. Artikuluak eta Dekretuaren 14.4 artikulua xedatzen dutenez, jarduketa horiei administrazio-errekurtsua jartzea dago, lurralde historikoetako dagozkion organoetan.

Beraz, estatutuetan eta hauteskunde-erregelamenduan izandako aldaketek onarpen administratiboa izan dutela kontuan izanik, gai horiek Batzorde honen kontrolatik kanpo geratzen dira, 14/1998 Legearen 138. artikuluan eta 310/2005 Dekretuaren 3. artikuluan xedatutako eskumenak baino ez baititu; horren ondorioz, ezin du jarritako errekurtsua ebatzi eta, horregatik, ez onartutzat eman behar du.

Aurreko hori guztia aintzat hartuta, KJEBak honako hau

## **ERABAKITZEN DU**

 andreak 2016ko irailaren 9an aurkeztutako errekurtsua ez onartzea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko

auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 29a.

JOSÉ LUIS AGUIRRE ARRATIBEL  
Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea